

# Hamazazpi

2014 ko negua



Ayuntamiento de Zigoitia  
Zigoitiko Udala

- \_ BORROKATZEN DEN LIBURUTEGIA
- \_ ZIGOITIKO BERTSO ESKOLA BERRIA
- \_ TOKIKO EMPLEGU PLANAREN KONTRATAZIOAK
- \_ ZIZKIÑO MENDI TALDEA, 10 URTE MENDIZ MENDI
- \_ AFICIONARTE, ZIGOITIA ARETOAREN ANTZERKI ZIKLO BERRIA
- \_ ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK ERABILTZEKO INTENTZIOAREN IKERKETA
- \_ UDALAK ESKURATZEN DITUEN DIRU-LAGUNTZAK: ZEINTZUK ETA ZERTAN GASTATU



## Hasteko

**03 Zergak**

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren hobari berria

**04 Enplegua**

Gopogiko lonja bat berritzatzeko 3 langile kontratatu ditu Udalak

## Hemen eta orain

**06 Adinekoak**

221 elkarrizketa etorkizuneko Adinekoentzako Komunitate Zerbitzuak diseinatuko

**08 Euskara**

Zigoitiak badu bere Bertso Eskola

**10 Dirulaguntzak**

2013an jasotako dirulaguntzak: zer nolakoak eta zertan gastatu diren kontatzen dizugu

## Liburutegitik, maitasunez

**12 Borrokatzen den Liburutegia**

Javier Arbuluren kolaborazioa

## Made in Zigoitia

**14 Zizkiño Mendi Taldea**

10 urte mendiz mendi

## Planak

**15 AFICIONARTE**

Zigoitia Aretoaren antzerki ziklo berria

## Azkena

**16 Batzuk**

- Administrazio-prozedurak errazagoak
- Autobus ordutegiak

Staff

**HAMAZAZPI.** Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2014 ko negua

**Azaleko argazkia:** Elena Mota. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala\_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T\_ 945 46 40 41 · [www.zigoitikoudala.com](http://www.zigoitikoudala.com) · [info@zigoitikoudala.com](mailto:info@zigoitikoudala.com)

**Koordinazioa eta erredakzioa:** Rosa Ortiz de Mendivil · [romendivil@hotmail.com](mailto:romendivil@hotmail.com)

**Diseinua eta maketazioa:** Hirudesign Web Estudio S.L · [www.hirudesign.com](http://www.hirudesign.com)

**Imprimaketa:** Gráficas Irudi · [www.graficasirudi.es](http://www.graficasirudi.es) · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiaatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

**HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:** [www.facebook.com/hamazazpialdizkaria](http://www.facebook.com/hamazazpialdizkaria) 

## Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren hobari berria

Aurten 21.000 € baino gutxiago irabazten duten familiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan jaitziera garrantzitsua izango dute. Pasa den urrian, Udaltzatzen zergaren hobari berria onartu zuen: familia kide kopuruaren arabera eta guztion urteko errentaren arabera, %35etik %90ra arteko kuota hobera ezarriko zaie. Hori dela eta, 14.000 eurotik 16.800 eurorainoko diru-sarrerak dituzten 2 lagunek osatutako familiak, % 75eko deskontua izango du, eta zergaren % 25a bakarrik ordainduko du. Familia ugarien kasuan (5 kide edo gehiago), kenketa minimoa % 90ekoa izango da, eta diru-sarrera 14.000 € baino gutxiagokoa izango balitz, kenketa % 95ekoa izango litzateke. Hobari berriak, familia ugarietarako lehen zegoena ordezkatzeko du eta bakarrik ezarriko da etxebizitzarako erabilera baino ez duten higiezinatarako, ohiko etxebizitza bada eta zergadunak etxebizitzarako bakarrik erabiltzen den beste higiezinik ez badu.

**Informazio gehiago:**

- udalaren web orrian, **Udal Araudia, Zerga Ordenantzak** sailean:

<http://www.zigoitikoudala.com/datos/epigrafe/documents/73/eu/IBI.pdf>

- udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, goizeko 9 etatik 14etara.



## 2014ko Zerga-ordaintzailearen egutegia

**ABELTZAINZA-KANONA ...**  
**Borondatez kobratzeko epea:**  
 2014-02-01 \_ 2014-03-31  
**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:**  
 Martxoaren hasieran.

**TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA .....**  
**Borondatez kobratzeko epea:**  
 2014-03-01 \_ 2014-04-30  
**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:**  
 Apirilaren hasieran.

**LANDA ETA KALE-ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA .....**  
**Borondatez kobratzeko epea:**  
 2014-05-01 \_ 2014-06-30  
**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:**  
 Ekainaren hasieran (zatikapen posiblea: erdia ekainaren hasieran eta gainontzekoa azaroan. 200 € baino gehiagoko zenbatekoak).

**ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK**  
 Udaletxea. Tel: 945 46 40 41  
 Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.  
 Faxa: 945 46 40 52,  
 e-mail: [zigoitia@zigoitia.org](mailto:zigoitia@zigoitia.org)

**Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak:**  
**Ordaintzeko lekuak:**  
 Vital Kutxaren eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan.  
 Internet bidez, web orri honetan: [www.zigoitikoudala.org](http://www.zigoitikoudala.org) (Nire ordainketa).

**Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak:**  
 Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

**AHOLKUAK .....**  
 Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalarik jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

**BETEARAZPEN EPEA .....**  
 Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

## Gopegiko Urisolo kaleko lonja bat berriztatzeko 3 langile kontratatu ditu zuzenean Udalak



Langabezian zeuden Zigoitiko 3 bizilagunek lan kontratu batekin hasi ahal izan dute urtea. Pasa den urtarrilaren 7tik 2 igeltsero ofizialek eta peoi batek egiten dute lan Gopegiko Urisolo kaleko etxebizitza sozialen azpian kokatutako udal-lonja bat berriztatzeko. Udalak kontratatu ditu zuzenean 3 hilabeterako, Zigoitiko Enplegu Planari esker. 2013ko irailean udal-talde politiko guztiek (governuko eta oposizioko taldeek) aho batez onartuta, Planak lan irteera bat eskaini nahi die udalerrian dauden 70 langabetu baino gehiagori. Eraikuntzako 3 profesional hauek bezalakoei; krisiak gehien kaltetu duen sektoreetako bat, hain zuzen.

### Merkataritza-lokal berria

Erreformaren ondoren, Urisolo kaleko lonja udalerriko ekintzaileei eskainiko zaie, alokairuan, merkataritza-erabilera eman ahal diezaioten, denda edo lantegi bat abiaraziz. Udaleraino iritsi zen balizko ekintzaile baten proposamena, lokala alokatzeko interesa erakutsiz, baina berriztatzeko behar zen karga ekonomikoak eta

lanak egiteko behar zen denborak, proiektua bideraezin egin zuten. Lonjako birgaitzearekin merkataritza-proiekturen bat gauzatzea espero da. Bide batez, ekintzaile eta autoenplegua bultzatuko dira, Planak duen beste helburu bat lortuz.

Aipatutakoaz gain (langabetuen zuzeneko kontratazioa eta ekintzailetzarako laguntza), beste 19 ekintza gehiago daude aurreikusita. Esate baterako, prestakuntza ikastaro espezifikoak (balizko lan eskaintzei lotuta), zuzeneko kontratazio gehiago edo enpresen udal hazitegi baten sorrera.

Une honetan, gainontzeko ekintzak martxan jartzeko epeak eta baldintzak zehazten ari dira; Zigoitiko Udalak gauzatuko ditu batzuk, beste batzuk, Zuiako Kuadrillarekin batera, baina guztiak hemendik 2015 urteko erdira arte (legealdi amaiera arte). Otsailaren 18an, adibidez, langabeei deituko zaie orain arte egindako ekintzak azaltzeko eta Planaren segimendu komisionan bere ordezkaria aukera dezaten.

### Zuiako Kuadrillaren kolaborazioa

Hala ere, pasa den azaroan Zuiako Kuadrilla Lanbideko (Euskal Enplegu Zerbitzuko) bazkide bihurtu zen, 2 ekintzaile motari laguntzak eskaini ahal izateko:

- negozio IDEIA bat dutenak, ideia hori garatzeko (2 plaza)

- BIDERAGARRITASUN-PLANA dutenak, martxan jartzeko (5 plaza)

Oraingoz Zigoitian bertan bere proiektua abiarazteko bi parte-hartzaile daude (nahiz eta sustatzaileetako bat Legution bizi).

Azpimarratzekoa da, era berean, Kuadrillaren bitartez 2013an egindako ekintzailetzarako eta autoenplegurako laguntzako proiektuak, eskualdean 5 enpresen sorrera ekarri zuela (haitetako bat Zigoitian).

Azkenik, Zuiako Kuadrillatik ere, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak udalek kontratatu ahal izateko finantzaketa eskatu da. 8 kontratu denboraldi osoz eta aldi partzialeko 6 izango lirake, 3 hilabeteko iraupenekoak eta basoko lanak egiteko. Oraindik ez da jaso Lanbideren erantzunik.



## Udal lonjaren berriztatzea

### Kontratutako langileak:

2 ofizial igeltsero eta peoi bat

### Kontratatzeko baldintzak\*:

- bizilekua Zigoitian izatea
- langabezian egotea
- eskatutako lanpostuan esperientzia profesionala izatea

### Interesatuen aukeraketako irizpide baliogarriak:

- lan esperientziaren denbora
- adina (berdinketarik egotekotan, nagusienak aurretik jarriko ziratekeen).

(\*: Udalak Lanbideri eskatu zion baldintza zorrotzagoak betetzen zituzten pertsonen zerrenda bat (subsidiarik ez jasotzea, langabezian egondako denbora minimoa...). Emandako epean ezin zen aurkitu profil horrekin izena emandako inor, beraz, baldintza minimoak jaitsi behar izan ziren).


### Zertan datza berriztatzea:

Helburua da merkataritza-lokal bihurtzea Udalak Gopegiko Urisolo kalean, etxebizitza sozialen azpian, beheko solairuan duen lonja bat. Lana komuna eta komunaurrea lonjan egitean datza. Fatxadetan, Urisolo kaleko sarreran aluminio-zurgintzako aurrealdea eta leiho bat jartzen ari dira.

Errepiderantz begiratzen duen aurrealdean aluminio-zurgintzako beste leiho zabal bat jarriko da. Zuloak estutuko zaizkie orain dauden harrizko azpadurei. Barrualdean fatxadako itxierak isolamendu eta adreiluekin gaineztatuko dira. Zoladura zeramikoa jarriko da lurzoruan, azulejuak komuneko hormetan eta modulatuak sabaia. Eta iturgintzako eta elektrizitateko instalazio egokiak egingo dira.

# Egunen batean adinekoak izango garelako

- Adinekoentzako Komunitate Zerbitzuak eta Hurbiltasunezko Zerbitzuak erabiltzeko intentzioa ezagutu ahal izateko, ikerketa-diagnostikoa jarri du martxan Udalak
- 221 elkarrizketa pertsonalen bidez eta programak eta baliabide espezifikoak garatzeko asmoz, etorkizuneko erabiltzaileek beren beharrak planteatu eta iradokizunak eman ahal izango dituzte.



Argazkiak: SXC.

Argazkia: Elena Mota.

Non zahartzea gustatuko litzazukeen pentsatu al duzu inoiz? Galdera honen aurrean gehiengo handi batek, adina edozein dela ere, bere etxean, bere senide eta lagunekin erantzuten du. Baina beti ez da posible. Hori dela eta egungo gerontologiak (zahartzea aztertzen duen zientziak), gure nagusiei autonomia eta bizi kalitate handiagoa eskaintzen dieten sorospen eredu eta baliabide berriak bilatzen ditu. Euren etxeetan edo ahalik eta antzerakoagoak diren lekutan. Gainera ezin da ahaztu gaurko bizimoduak eta populazioaren zahartze prozesuak, gero eta gizarte zaharragoa eta pertsona zaharrez arduratzeko gutxiago prestatua dakarrela. Egoera honen aurrean, Zigoitiko Udalak pertsonak bere ingurunean egotea bermatzen duten Hurbiltasunezko Zerbitzuen aldeko apustua egin du; pertsonalizatutako arreta batekin, bakoitzaren beharrei, bizi-baldintzei eta gustuei egokitu. Eta bakoitzaren gaitasunak kontuan hartzen dituen, ez bakarrik gabeziak.

Horregatik guztiagatik, etorkizunean eskaini beharko liratekeen Helduentzako Komunitate Zerbitzuak eta Hurbiltasunezko Zerbitzuak erabiltzeko intentzioa ezagutu ahal izateko, ikerketa-diagnostikoa abiarazi du Udalak. Sortuko diren baliabide horiek, egun daudenak (Eguneko Arretarako Landa Zentroa eta Etxeko Arretarako Zerbitzua) osatuko dituzte. Helburua da prebenitzea eta aritzea, biztanleriaren zahartze prozesu geldiezinaren aurrean.

## Arabako Gizarte Laneko Elkarteak

Analisietako aurreko fase baten ondoren, otsailaren bigarren hamabostaldian Arabako Gizarte Laneko Elkarteko (AGLEko) lan talde batek 221 elkarrizketa pertsonalizatu egingo ditu. Zigoitiko herritarren errealitate desberdinak ezagutu nahi dituzte: osasun egoera, etxebizitzarena, familiaren osaketa, eguneroko errutinak, etxeko lanak eta erosketak nork egiten dituen... 2 elkarrizketa mota izango dira: 55 eta 69 urte bitarteko

”

Elkarrizketetan osasun egoera, etxebizitzarena, familiaren osaketa, eguneroko errutinak, etxeko lanak eta erosketak nork egiten dituen... galdetuko da

pertsonen zuzendutakoak eta 70 urte baino gehiago dutenei zuzendutakoak. Zatiketa honen arrazoa talde bakoitzaren bizi-une erabat desberdinean datza, AGLEko Lorena Salazarren ustez. “55 urteko pertsonen oraindik ez daukate adineko inolako arazorik, ezta benetako beharrik ere. Etorkizunari begira, erabiltzaileen planteamenduak orokorrak dira, aurreikuspenak baino ezin dituzte planteatu. Nagusia den pertsona batek, berriz, beharrak ditu jada eta arazoak topatzen ari da. Bere balioespena askoz zabalago eta zehatzagoa izango da”, adierazi digu gizarte langileak.

## Gure etorkizuna diseinatzeko

Hitzorduak, ordu erdiko iraupenarekin lehenengo taldean eta 45 minutukoarekin bigarrean, Zigoitiko 17 administrazio-batzen lokaletan egingo dira. Mugikortasun gutxi pertsonen kasuetan izan ezik: hauen kasuan, beren etxeetan egin daitezke. Eta beti giro eroso eta atseginean. Zentzu honetan, AGLEn auzotarrek prestutasuna izatea espero dute. “Gizarte langile taldeak egingo ditu elkarrizketak, pertsona guztien beharrak atzemateko guztiz gai diren profesionalak eta hitz egiten dutenak dakitenak. Behar dugu, hori bai, denbora pixka bat eskaini diezaguten. Baina guk geuk etorkizunean erabili beharko ditugun zerbitzuak diseinatzeko aukera paregabea da”, amaitu du Lorena Salazarrek. Elkarrizketetan lortutako informazio guztiarekin, AGLEk Udalarentzako txosten bat egingo du. Hor azalduko dira herriak eta profesionalak egindako Zigoitiko zerbitzu banako eta kolektiboak planifikatzeko gomendio eta proposamenak.



Argazkia: Imanol Txi.

795

Beren etxetan zahartu nahi duten 50 urtetik gorako pertsonen ehunekoa.

## Zigoitia

Gure udalerrian 55 eta 69 urte bitarteko 367 pertsona daude (158 gizon eta 211 emakume).

## Bizi-itxaropena

Euskadi da, Europar Batasunean, bizi itxaropen altuena duen eskualdea eta munduko gainontzeko altuenetarikoa bat: batz bestea 85,7 urte emakumeentzat eta 79 gizonentzat.

## 65 urtetik gorakoak

2020. urtean, Araban bizi izango diren 65 urtetik gorako pertsonak biztanleriaren % 21 izango dira. Eta portzentaje hori bikoiztu egingo da lau hamarkadatan. Beraz, 2050. urtean 10 arabarretik lauk 65 urte baino gehiago izango dituzte.

Iturria: EUSTAT, Euskal Estatistika Erakundea

Taldea irekita dago oraindik. Neskak, mutilak, gazteak, helduak... onartzen dira

## Zigoitiak badu bere Bertso Eskola



Zigoitiko Zentro Soziokulturalean gaude. Asteartea da, arratsaldeko 8:00ak. Arri, Mikel eta Koldo 'Gorbea' aretoko atetik agertzen dira. Puntual-puntualak. Gelan Iñaki Viñaspre, Abetxukoko bertsolaria eta taldeko irakaslea, beren zain dago. Gaur Gasteizko bi bisitarik lagunduta, Andoni eta Aritz. Aurrean 90 minutu, ordu t'erdi, bertsotan aritzeko. Doinu, neurri eta errimak ikasteko. Adimena, memoria, irudimena eta hitz trebetasuna ere lantzeko. Eta baita jendaurrean nola agertu ere praktikatzeko. Baina, batez ere, dibertitzeko; euskaraz eta euskararekin gozatzeko. Hauxe da, jaun-andreok, Zigoitiko Bertso Eskola jai berria.

Pasa den 2013ko negu hasieran jarri zen martxan Zigoitiko Bertso Eskola. Bi hilabete besterik ez dira pasa, baina taldeak dinamika polita hartu du jada. Klasearen hasieran, agurra botatzen dute. Normalean ikasleek etxetik ekarritakoa, lanean haste hori errazteko. "Eta prestatuta ekartzen ez dutenean, batzuetan kostatzen da", azaltzen du serio irakasleak. Jarraitzeko, ariketa sinpleak egiten dituzte oraindik, hasiera maila delako. Gaur adibidez 'lau oinak' ariketari ekin diote, lau errimak

emanda bertsoak bota dituzte. Gero 'ofizioka' jardungo dute (binaka bertsoak botako dituzte). Beste batzuetan, doinuak eta neurriak lantzen dituzte. Hori bai, nahiz eta hasi berriak izan, saio guztietan duten betebeharrak da kantatzea. "Hasieran galdetu nien zer egin nahi zuten. Kantatu, esan zidaten. Beraz, lotsa kanpoan uzten dugu eta beti kantatzen dugu", kontatzen du Iñakik. Hori da giro onaren seinale, irakaslearen arabera, eta aldi berean ikasteko jarrera onena. Egia esan, meriendatxoarenak

ere laguntzen du. Aste bakoitzean klaseko batek (maisua barne) askaria eraman behar du. Gaur Aritzek ekarri du gazta, saltxitxoia eta edateko zerbeit. Eta, edonork dakien bezala, horiek jakiak baino bertso iturriak dira; jan bitartean, ideiak jariatzen hasten dira eta. Konturatu gabe 9:30ak dira. 'Gola, inola, kirola eta axola' hitzen artean klase bukaerara ailegatu gara. Alde egiteko ordua da. Presa handirik ez badago, tabernan 'bertso pote' bat hartuko dute. Praktikatzeko jarraitzeko. Eta, horrela jarraituz gero, kurtso bukaeran herriko jendearen aurrean zerbeit 'ofizial' egin beharko dute: bertso bazkaria, bertso potea... Kuadrillako gainontzeko bertso eskolek egiten duten moduan. Ikasi dutena erakusteko asmoz. Baina, batez ere, euskararekin jolasten, klasean bezala, jarraitzeko.



### Harremanetan jartzeko

Zigoitiko Bertso Eskola irekita dago. Parte hartu nahi izanez gero, edo informatzeko besterik gabe, hona hemen harremanetarako datuak:

T\_ 945 43 01 67 / [euskara@cuadrillazuia.com](mailto:euskara@cuadrillazuia.com)  
(Manex Agirre, Zuiako Kuadrillako Euskara Teknikaria)

T\_ 688 69 58 75 (Iñaki Viñaspre, Zigoitiko Bertso Eskolako irakaslea)

T\_ 945 01 05 05 / [araba@bertsozale.com](mailto:araba@bertsozale.com)  
(Arabako Bertsozale Elkarte)

### Info gehiagorako:

[www.bertsozale.com/araba](http://www.bertsozale.com/araba)  
[www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com)

## ZUIAKO KUADRILLAKO\* gainontzeko BERTSO ESKOLAK:

- ARAMAIOko Bertso Eskola. 4 taldek osatua: helduak, gazteak (2 klase) eta umeak.
- LEGUTIOko Bertso Eskola. 2 talde ditu: gazte-helduak (17 urtetik gora) eta umeak.
- URKABUSTAIZko Bertso Eskola. Izarran dago eta 2 talde daude: helduak eta gazteak.
- ZUIAko Bertso Eskola. Murgian dago, gazte talde batek osatuta.

(\*: Zuiako Kuadrilla 6 udalerrik osatzen dute: Aramaio, Arratzua-Ubarrundia (Durana da hiriburua), Legutio, Urkabustaiz (Izarra), Zigoitia (Ondategi) eta Kuadrillako izen bera duen udalerria, hau da, Zuia (Murgia).



## ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKOA 2014

2014an proposamen berri batek astinduko du Arabako bertso-mugimendua: *Kuadrilla artekoak*, hain zuzen ere. Orain arteko Kuadrillen eta taldeen arteko "txapelketa formatua" desagertu egingo da honekin: ez da lehari egongo, ez da txapeldunik egongo. Bat-batekoan 15 taldek hartuko dute parte, eta idatzizkoan 19k: guztiek izango dute parte hartzeko aukera berbera. Helburua, horixe: autogestioaren bidetik, kantatzea, eta kantatuz ondo pasatzea, 20tik gora saiotan. Hemen duzue informazio guztia: [www.bertsozale.com/araba](http://www.bertsozale.com/araba)

2013an Zigoitiak 142.000 € jaso zituen, Arabako Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik

## Ba al dakizu zer nolako diru-laguntzak eskuratzen dituen Udalak, eta zertan gastatzen diren?

Joan den urtean Zigoitiko Udalak 141.991,25 € jaso zituen hainbat administrazio eta erakundetatik: Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Emakunde, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE) eta Gazteriaren Foru Erakundetik (GFE), esate baterako.

Jasotako diru-laguntzak dira, gehienbat, udalerraren kanpo finantzazioaren iturri nagusia. Eta gauzatzen dituzte beste modu batez ezinezkoak izango liratekeen proiektuak (Udalaren errekurtso propioak – zergen bidez edota bere ondarearen ustiapenen bidez lortutakoak- mugatuak baitira). Jarraian, 2013an diru-laguntzen bitartez finantzatutako lan eta zerbitzu nagusiak errepasatuko ditugu.

(\*: aipatutako lan eta zerbitzu batzuk 2012n burutu ziren, baina 2013an kobratu zituen Udalak diru-laguntzak).

### ARABAKO FORU ALDUNDIAK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK:



#### Nekazaritza Saila

- Mendi publikoko pagadiaren antolamendu-plana: **31.857,18 €** (mantenu lanetarako, 2012 eta 2013ko urterokoak; eta datozen 10 urteetarako Antolamendu-Plan berriaren idazketarako)
- Gorbeiko Eskualdeko XVIII. Zaldi Azoka: **1.495,49 €**
- Mugarriztatzea: **1.133,10 €** (partikularrekin lur trukeagatik Erabilgarritasun Publikoko Mendia mugatzeko mugarriztatzea; Sisigutxi mugatzeko mugarriztatzea eta Gopegi-Larrinoako 'cel'era mugarriztatzea)



#### Euskara, Kultura eta Kirol Saila

- Euskararen sustapena eta normalizazioa: **11.934,39 €** (Korrika Kulturala, Udalekuak, Gorbeia Eskolako 'Gu ere bertsotan' lantegia...)
- Kirol jarduerak: **6.855,97 €** (kirol ikastaroak, Zentro Soziokulturala, igeriketa, ikasleentzako izotz pista eta rokodromoa, helduen gimnasiarako garraioa...)
- Kultur ekintzak: **2.584,24 €** (Hltagu antzerki eskola, ipuinkontalariak, eskulanak, zaharberritze lantegia...)



#### Toki Administrazioaren Saila

- Lan txikiak: **10.998,61 €** (Zentro Soziokulturaleko erretenak eta sabai-leiho konponketa)

#### Gizarte Zerbitzuen Saila

- Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena: **4.932,74 €** (emakume, guraso, nerabe eta lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzako lantegiak; udal langileriaren eta udalkideen formakuntza; hitzaldiak, informazio kanpainak...)

Gazteriaren Foru Erakundea · Gazte kluba: **2.201 €**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea · Eguneko Arretarako Landa Zentroaren hornikuntza: **32 €**

### EUSKO JAURLARITZAK EMANDAKO DIRULAGUNTZAK:

#### Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

- Bideart programa: **16.109 €** (Zigoitian arte eszenikoen sustapenerako bertako Panta Rhei Produkzioak antzerki konpainiarekin sinatutako akordioa)
- Udal liburutegiaren hornikuntza: **12.279,26 €** (zerbitzua martxan jartzeko altzariak, ekipamendua eta programa informatikoak)
- Gorbeia Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko lanak: **1.649,55 €** (jolastokian bankuak, ping-pong mahaia eta baratze ekologikorako tresnentzako etxolaren instalazioa; jolas eremua margotzea eta hesia jartzea)
- Euskararen sustapena: **1.631 €** (udal langileei, udal korporazioari eta herritarrei oro har zuzendutako Euskara Erabileraren Plan Orokorra)
- Kale Antzerkia: **1.037,58 €** (2 ikuskizun)
- Irakurketaren sustapena: **1.020 €** (idazketa lantegia, idazleen hitzaldiak... haur eta gazteen arteko irakurketa bultzatzeko)

#### Ingurumena eta Lurralde Politika Saila

- Mapa toponimikoak: **12.000 €** (udalerraren mapa toponimikoa eta herrietako kale-izendegiak egitea)

#### Herri Administrazio eta Justizia Saila

- Zigoitiko Bake Epaitegiaren funtzionamendu gastuak: **1.850 €**

#### Osasun Saila (Eusko Jaurlaritza) eta LEADER programa (Europakoa)

- Nordik Walking-eko ibilbideak: **9.386,39 €** (ibilbidearen diseinua eta seinalezapena, praktikorako bastoiak erostea, zabalkunderako hitzaldiak...)

#### EMAKUNDE

- Berdintasun Plana eta bortizkeriaren biktimak diren emakumeenganako arretarako protokoloa: **7.713,75 €**

#### LEADER programa

- Udalaren web orri berria sortzea: **3.290 €**



Eusko Jaurlaritzari eskatutako diru-laguntzak baina oraindik ere erantzun gabekoak:

#### Eplegu eta Gizarte Politiketarako Saila

Gopegi-Ondategin Eskuragarritasun Plana (hiri-ingurunean eskuragarritasuna hobetzeko estudioa; komunitateko gune publikoak (udal eraikinak eta parke publikoak), garraio publikoko azpiegiturak eta komunikazio sistemak)

#### Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasun Saila

Herri bideetako konponketak (Muruko harrobietarako bideko zuloa eta San Pedrotik Akostarako bideko zuloa)

## Borrokatzan den liburutegia

Testua eta argazkiak: **J. Arbulu**

Erik Satek zioenez 'borrokak ugariak dira, atsedetik gabekoak, errepikatuak. Batez ere konpromisorik ez egitea. Amore ematea beti izango da uzurtasunaren seinale, ez bakarrik ahultasunarena'. Jendeak dio Zigoitiko liburutegiak ez duela amore ematen. Zigoitiko liburutegiak borroka egiten duelako zurrumurrua dabil. Egia izan bedi, izan ere, zer egin ahal izango luke liburutegi batek borrokatzea ez bada? Gure liburutegi txikia, zerbaiten kimu gazte gisa - haritzarena, sekuoiarena, lizarrarena edo belarrarena-borrokan dabil, eta, aldi berean, eguraldi txarraren eraso ororen menpe dago. Gure liburutegia okertu egiten da, bere burua babesteko, bai, baina baita gezia botatzen duen angelu egokia lortzeko ere. Hauskortasuna dagoenean soilik dago benetako abentura.

### Dar-dar egiten duen liburutegia

Euri asko egiten du hemen. Elurra egingo duela diote. Elurak leku bat egingo dio gure liburutegiari, leku eder bat bere altzoan. Liburutegiak dar-dar egingo du baina ez da hotzez hilko. Bizirik dagoelako egiten du dar-dar. Batzuetan gure liburutegiak begiratzen dit eta esaten dit: 'E, txo! bizirik nagoelako nago dardarka, eta zuk dar-dar egiten baduzu bizirik zaudelako izango da'.

Eta orduan biok batera borrokatzera ateratzen gara. Batzuetan, borrokatzen garen bitartean, lagunak soinez soin gure aldamenen borrokan ikusten ditugu. Hori da onena. Horrek egia bihurtzen du borroka eta merezi duela erakusten du.

Batzuetan, borrokaren ondoren, kabalkada berberean ateratzen gara lagunekin: pixagalaien arteko loretxo distiratsuak bezalakoak gara. Orbain argitsuz estalirik barre egiten dugu. Baina kabalkadak gutxi dirau. Nork ekin diezaioke kabalkadaren ametsari? Hobe, dio liburutegiak, metalak entzun; hobe aurpegia azalgorriz margotu; hobe hozka eta ulu egin



Aranondo japoniarreko kimuak, Galaxietako Gerrako plastilinazko iruditxoak...

beste amets horretan. Liburutegi batek ulu egiten duen bezala ulu egin dezagun eta gizon batek ulu egiten duen bezala ulu egin dezagun. Liburutegiak ulu egiten duelako eta, aldi berean, kanta asko ezagutzen dituelako. Ez dira martxa militarrik baina segur aski bataila-kantak edo borroka-kantak izango dira. Batzuk gurekin kantatzera etortzen zarete. Liburutegira hurbiltzen zarete eta kantika horiek elkarrekin abesten ditugu. Aranondo japoniarreko kimuak, liburutegi zoro bateko apaletatik ateratako liburuxkak, Galaxietako Gerrako plastilinazko iruditxoak, gozokiekin jositako loreak ekartzen dituzue. Batzuek zuen seme-alabak ere ekartzen dituzue eta hemen uzten dituzue, fidakor.

### Seme-alabak eta kimuak

Duela ez asko, zuetako batek Roberto Bolaño bere semeari kantatutako abesti bat ekarri zuen. Norbaitek Liburutegiari zera esango balio bezala izan zen: 'Begiratu, txo! Bolaño bere semeari kantatzen diona zuri kantatzen dizut nik. Nik ere seme-alabak ditut. Nire seme-alabak batez ere nireak dira, baina nolabait zure anai-arrebak ere badira, zu nire seme-alabak bezain txikia zarelako baina egun batean nire seme-alaben eskola izango zara, egun batean zu nire seme-alaben arkua eta gezia izango zara, egun batean nire seme-alabek abesten duten kanta izango zara'.

Orduan abestia entzun nuen eta liburutegiak ere abestia entzun zuen eta zen Penobscoteko izoztutako uretan edo Vall d'Hebron ospitaleko oheen artean distiratzan zen kanta ederra zen.

Kantan olerkariak bere semeari bere liburuak babesteko eskatzen dio, ekaitzetatik babes ditzala: 'olerkari zaharrak irakurri - esaten dio- eta bere liburuak zaindu'. Haiek ez dira Ezerezean bizi, baizik eta Ametsetan. Aurrerago kantak bere semea babesteko eskatzen die liburuei - edo olerkari zaharrei -

### 'Eutsi, liburutxo maiteok

**Zeharka itzazue egunak, erdi aroko zaldunek bezala  
Eta zaindu nire semea dotozen urteetan'.**

Babes ezazue elkar, garaitu gabeko gansterbanda baten leloa bezala. Kimua kimuaren kontra bezala babes ezazue elkar, eta beldurrik gabe ireki zaitezte, hauskortasuna baita zuen oparia. Berritsu gogaikarrietatik, azokaberritsuetatik, ile-ateratzeko saltzaileetatik eta Ametsetan bizi ez direlako Ezereza erosten dutenetik babesten zaituzten hauskortasuna. Hauskortasun horrek Kulturatik babesteko zaituzte ('K' larriz idatzitako eta Merkataritza-Erregistroan zenbakia duen Kultura hori). Ametsetan izan hauskorak eta adoretuak, beharrezekin eta amorruekin irakurri, hots, adimenarekin, mesfidantzarekin eta irmotasunarekin, beste gauza bat eskatu beste gauza hori ona delako eta ondo dagoelako.



Argazkia: SXC.



Miguel García de Cortazarrek 'Atzekoz aurrerako gizonei buruz' hitz egin zigun.

# ZIZKIÑO MENDI TALDEA, 10 urte mendiz mendi

## Noiz eta nola jaio zen?

ZIZKIÑO MENDI TALDEA 2004ko otsailan sortu zen. Hilabete bat geroago lehenengo irteera egin zen, Oketa eta Zizkiño Mendietara. Hasierako ideia eta asmoa bikoitza zen: alde batetik mendiaz gozatzea baina baita ere Zigoitiko bizilagunei aisialdirako aukera berriak eskaintzea, biztanleen arteko harremanak indartuz eta kirola egiteko ohitura bultzatuz.

## Ohitutako mendizaleak eta berri-berriak

Hasiera horretan 15 bat lagun zeuden. Gaur egun 80 bazkide baino gehiago dira, Zigoitikoak zein inguruko herrietakoak. "Adinaren aldetik ere denetarik dago: gazteak, ez hain gazteak, 65 urtetik gorakoak... Gainera azken urte hauetan bazkide jaioberri ugari izan dugu, beraz erreleboa ziurtatua dugu", kontatu digute Zizkiñoakoek.

## Nola funtzionatzen dute?

Hilero, gutxienez mendi irteera edo ekintza bat prestatzen dute. Irteera batzuk egun bakarrekoak dira baina beste batzuk asteburu osokoak. 10 urte hauetan mendietara igotzeaz aparte beste gauza asko eta oso ezberdinak ere egin dituzte: ikastaroak antolatu (neguko teknikak ikasteko, eskia...), mendi bizikletako txangoak, irteera mikologikoak... Urtero Mendi Jardunaldiak ere antolatzen dituzte mendiarekin edota bidaiekin lotutako hitzaldiak eta argazki emanaldiak eskaintzeko. Orain arte denetarik ekarri dute: Zortzimilako mendietan ibilitako mendizaleak, eskalatzaileak, mendi eskiatzaileak...

## Gogoratzeko moduko irteera bat

"Zaila da horrenbeste mendi eta leku ezberdinetan egon eta gero bakarra aukeratzeko. Euskal Herriko oso txoko politak ezagutu ditugu, baita penintsulako hainbat mendikate ere (Pirinioak, Picos de Europa, Gredos, Palentzia, Sierra Nevada...). Atlas-ean ere, Marokoraino joateko aukera izan dugu", azaldu digute.



## X. urteurrena ospatzeko

Irteera berezi bat egingo dute udaberrian, maiatzaren bukaeran, taldeari izena ematen dion mendira, Zizkiñora, eta horren ostean bazkari bat. "Hamar urte hauetan mendi taldearen inguruan ibili garen ahalik eta jende gehien biltzea gustatuko litzaiguke, ospatu eta urte hauetan zehar bizitakoak gogoratu ahal izateko". Laburpen gisa argazki bilketa eta erakusketaren bat egiteko ideia ere badaukate.

## Bazkide izateko:

Urteko kuota 12 € dira. Harremanetarako:  
E-maila: jonbizki@yahoo.es. T: 635 73 75 71



# ARTEZALETU NAHI? "AFICIONARTE"!

## Zigoitia Aretoaren antzerki ziklo berria

Zer da zuzena? Eta zuzena ez dena? Nork erabakitzen du?

'Org. Amén'-i buruz ari gara. Testurik gabeko antzezlan da, umore mindu eta urratzailekoa. Eta Zigoititik pasatu berri da 'Aficionarte' zikloa irekitzeko, **LO QUE TÚ ME HACES** taldearen eskutik. Eta bai, 'taldea' darabilgu "konpainiaren" ordez, hor dago programazioaren koxka eta. Profesionalak ez diren taldeek egindako antzerkia da, profesionala ez den begirada batetik sortuta. Freskotasan handiko proposamena eta publikorentzat oso hurbila. Talde horiek, gainera, profesionalen harrobi bikaina dira. Eta egiten duten lana 'antzerkigintza afizionatua' baino, antzerkietara joateko modukoa da. 'Aficionarte'-k martxoaren 9an jarraituko du **KUKUBAZAR** elkartearekin.

'Eolo' antzezlan ekarriko digute. Gerrak, trenak, poesia eta beste emakume batzuk bilatzen dituzten eta bilatzen ez zutena aurkitzen bukatzen duten emakumeen istorioa, hain zuzen ere.

Apirilaren 6an, esperientzia handiko aktorez osatutako **TERCER PAISAJE** taldea ailegatuko da. 'Un árbol frente a la puerta', testu eta pertsonaien sorrera lana, taularatuko dute. Maiatzaren 11n, **CANELA EN RAMA**-ko neska mutilek itxiko dute zikloa Dario Fo-k idatzitako 'No hay ladrón que por bien no venga' lanarekin. Giza hipokrisiaz, umore tonuan, hitz egiten duen nahaste dibertigarria.

Lan guztiak igandetan dira. Sarrerak salgai 2 eurotan. Publiko gazte eta helduarentzat. 'Aficionarte' zikloaren xehetasun guztiak, [www.zigoitikoudala.com](http://www.zigoitikoudala.com) web orrialdean.



KUKUBAZAR-en 'Eolo' antzezlan, martxoaren 9an Zigoitia Aretoan.

Eta ez ahaztu **Zigoitia Aretoaren ohiko programazioa**. Larunbatetan. Antzerki konpainia profesionalen eskutik. **MARÍA PARRATOK** ireki zuen denboraldia. Nazioarteko entzute handiko talde honek 'Caminos' antzezlan ekarri zuen; antzerki esperimental publiko familiarra maitemindu zuena.

Otsailaren 22an **TITIRITEROS DE BINÉFAR** taldeak bisitatuko gaitu. 'Azeriaren alegia' lana karga poetiko handikoa da, familia osoari zuzendua. Hunkitzea egiten dute promes. Alegia Asia, Hego Amerika, Estatu Batuak eta Europan zehar ibili ondoren, Zigoitira ekarriko dute orain.

Martxoan **ADOS TEATROA**, estatuan oso ezaguna den sorkuntza eszenikoko konpainia, 'Figurantes'-ekin etorriko da. Umerezko trama horrek "zinemaren negozioaz baino, bizitzaren negozioaz hitz egiten du". Martxoan, era berean, **PANTA RHEI**-k, Zigoitiko konpainia egoiliarak, 'Auzokideak' aurkeztuko du.

"Istorio dibertigarria, ezin bizkorragoa, musikala, aniztasun funtzionala tratatzen duena. Ikastola guztia eta euskaltegiatiko taldeak ikustera etorriko dira. Eta dibertitu nahi duen guztia", kontatu digu taldeko Idoia Ayestaránek.

## Info gehiagorako:

[www.bidearteszena-zigoitia.info](http://www.bidearteszena-zigoitia.info)





# Administrazio-prozedurak errazagoak eta argiagoak

Inoiz aurkitu dituzu udal-izapide korapilatsu edo gogaikarriak? Batzuetan pentsatzen duzu administrazioko hizkuntza ez dela ulertzen? Hori guztia konpontzeko, Zigoitiko Udalak, Arabako beste udal batzuekin batera, udal-izapideak arrazionalizatzeko eta errazteko balioko duen Administrazio-Prozeduren Eskuliburuak lantzeko asmoa du. Asmoa da herritarrei eskainitako zerbitzuen kalitatea handitzea eta kudeaketa eraginkorragoa eta gardenagoa lortzea. Izan ere, eskuliburuak Arabako udalek egin behar duten administrazio elektronikorako bidea erraztuko du.



## Autobusen ordutegiak

ETXAGUEN → VITORIA-GASTEIZ		10A LINEA														
																
	ZETAIFE ZETAIFE	OKIZETA OKIZETA	ETXAGUEN ETXAGUEN	MURUA MURUA	LARRINCHA LARRINCHA	MARRUBIA MARRUBIA	ZETAIFE ZETAIFE	OZKATEGEO BIDEZ BITEZA OZKATEGEO BIDEZ BITEZA	OKIZETA OKIZETA	ETXAGUEN ETXAGUEN	MARRUBIA MARRUBIA	BERRIBARRO BERRIBARRO	MURUA MURUA	OKIZETA OKIZETA	OZKATEGEO BIDEZ BITEZA OZKATEGEO BIDEZ BITEZA	VITORIA-GASTEIZ VITORIA-GASTEIZ
Astakerenetik Ostiratsa Lunes a Viernes	* * * *	* * * *	7:00 7:02 7:04 7:06 7:10 7:13 7:18 7:50	* * * *	* * * *	* * * *	* * * *	* * * *	7:08 7:10 7:13 7:18 7:25 7:30 7:35 7:40	* * * *	* * * *	* * * *	* * * *	* * * *	* * * *	* * * *
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua Letra beltzez dauden ordutegietan, ikasturtean zehar bakarrik ematen da zerbitzua				*Servicio de acercamiento con aviso previo Los horarios en negrita sólo se realizan durante curso escolar												

VITORIA-GASTEIZ → ETXAGUEN		10A LINEA																
																		
	VITORIA-GASTEIZ VITORIA-GASTEIZ	OZKATEGEO BIDEZ BITEZA OZKATEGEO BIDEZ BITEZA	ZETAIFE ZETAIFE	MARRUBIA MARRUBIA	LARRINCHA LARRINCHA	MURUA MURUA	ETXAGUEN ETXAGUEN	OKIZETA OKIZETA	ZETAIFE ZETAIFE									
Astakerenetik Ostiratsa Lunes a Viernes	* * *	* * *	9:00 14:45 20:00	* * *	* * *	* * *	9:25 15:10 20:25	9:32 15:17 20:32	* * *	* * *	9:42 15:27 20:42	* * *	* * *	9:46 15:31 20:46	9:48 15:33 20:48	9:50 15:35 20:50	* * *	* * *
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua				*Servicio de acercamiento con aviso previo														